



300 KG HONDAKIN JASO DITUZTE ELKARLANEAN

**235 gipuzkoar baino gehiagok hartu dute parte Itsas Zaintza Sareak
sustatutako aldibereko 6 itsas hondakinen bilketetan**

Joan den igandean, azaroak 17, ITSAS ZAINZA SAREAK, itsasoa zaintzeko lanean diharduten Gipuzkoako itsas eragileen sareak, bigarren ekintza bateratua ospatu zuen elkarlanean. 235 pertsonak Gipuzkoako kostaldearen zaintzan parte hartu zuten Zarautzen, Donostian, Pasaian, Hondarribian, Zumaian eta Mutrikun deitutako 6 itsas hondakin bilketan inplikatur. Jardunaldi arrakastatsua izan zen sarea osatzen duten 50 eragile baina gehiagorentzat, sarearen koordinatzailea den MATER Ontzi Museo Ekoaktiboarentzat eta kolaboratzaile nagusia den Gipuzkoako Foru Aldundiko Iraunkortasun Sailarentzat ere.

11:00etarako dena prest zegoen eskularru, zaku eta piragua eta paddle surfeko arraunekin, MATERetik koordinatutako aldi bereko ingurumen sentsibilizazio ekintzarik handiena has zedin. Jardueraren lehen orduan, familiek, bizilagunek, eragileek eta itsas eremuko profesionalek indarrak batu zituzten eta 300 kg bildu zituzten guztira. Sarearen helburuetako bat da ingurunearen ezagutza gainerako gizartearekin partekatzea, eta, beraz, lanak aurrera jarraitu zuen zabor horren karakterizazioarekin. Karakterizazioa bildutako objektu bakoitza bereizteko eta kontabilizatzeko prozesu sakona da, herritar-zientziari buruzko metodologia baten bidez, datu horiek administrazioarekin eta ikerketa-zentroekin partekatzeko aukera ematen duena. Jasotako hondakin kopurua banan-banan zenbatuz eta xede-edukiontzien arabera bereizita, kiloez ez ezik, eremu bakoitzean ugariagoak diren hondakin-tipologiez ere hitz egin dezakegu. Datuak harrigarriak dira.

JASOTAKO ITSAS HONDAKINAK

12.800 objektu eta hondakin-zati baino gehiago bildu zituzten. Nabarmentzekoak dira plastikozko pieza degradatu eta zatikatuak, tamaina desberdinetakoak (% xxx), hauetan poliespana edo kortxo zuria da nagusi Zarautz, Mutriku edo Zumaia bezalako puntuetan. Ugariak diren plastikozko pieza identifika ezin hauek mikro eta nanoplastiko bilakatzeko bidean daude. Laster ikusezin bihurtuko dira begi hutsez, baina ingurumen eta osasun publikoko arazo handi bat suposatzen dute; izan ere, antolatzaileek gogorarazi digutenez, "elikagaien kate trofikoan sartzen dira, baina baita uraren zikloan ere, arnasten dugun airean nahiz hartzen dugun edozein edaritan presente egonda".



INPLIKATUTAKO ERAGILEAK

Eskertzekoa da Itsas Zaintzako Sareko eragile guztien konpromezua, bereziki, beren pasio eta inplikazioarekin bertan egon direnena: Eskuene, Mundaiz Ikastetxea, DYA, Kairoscore, Real Club de Tenis de San Sebastián, Donostia Kayak K. E., Pasaia Kayak, Buceo Donostia, Real Sociedad Urpekoak, Guardia Zibilaren Itsas Zerbitzua, Recicla Birziklatu, el Hondarribiko Klub Nautikoa eta KAEBNAI; baita MATEReko boluntariotzari ere: Jodi, Itsaso y Carlota. Askotariko eragilez osatutako komunitatea, helburu partekatu baten aurrean indarrak batzea eraginkorra dela erakusten duena.

Ekintza hau Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen baitan antolatu da, eta ITSAS ZAINZA SAREtik gogorarazi digute bertako kideek itsasoaren egoera jasotzen eta partekatzen jarraituko dutela urtean zehar, itsasoaren garrantzia eta zaintza gizarteko estamentu guztietara eramateko. Izan ere, gogorazten digutenez, "itsasoa ez da zaborteia, bizi-iturria da, eta zaindu eta errespetatu egin behar dugu etorkizun osasungarria ziurtatzeko".

[ARGAZKIAK ETA GRAFIKOAK](#)

HARREMANETARAKO

Markel Elizalde | Komunikazioa arduraduna

komunikazioa@mater.eus

689023543